



## Covid-19-ak pertsona guztiei kalte egiten die.

“Migrazioak” egitasmoaren gizarte proiektuaren ibilbidean lagun asko egin ditugu. Gaurko egoera berezi honetan oso interesgarria iruditu zaigu hauetako hainbati, berau nola bizi duten galdetzea, bai gure artean, bai beraien jatorrizko herrialdeetan ere. Horregatik leiho birtual hau irekitzea erabaki dugu, non, aldizka, gurekin “Migrazioak” proiektua osatu duten hainbat lagunekin izandako solasaldiak argitaratzen joango garen.

- **Jon Enrique Galarza**



Gaur Ormaiztegiko alkatearekin dugu solasaldia, Jon Enrique Galarza. Ormaiztegi Gipuzkoa erdi aldean dagoen herri industrialia dugu, 1.300 biztanle inguru, %10 kanpoan jaiotakoak. Apirilak 16an izandako solasaldia. Konfinamenduaren bostgarren astea. Apirilak 16an Mikel Alberdikin izandako solasaldia. Konfinamenduaren bostgarren astea.

**Jon:** Bai, egunon.

**Mikel:** Egunon Jon, zer moduz?

**Jon:** Kaixo, bueno ba, danok bezala, egoeragatik arduratuta, baina, osasuna badaukagu eta horixe da inportanteena.

**Mikel:** Zu udalera joan beharrean zabilta, ez?

**Jon:** Egia esan, nahiko murriztu dugu. Telelana egiten ari gara eta antolatzen gara egunean bat egoteko, gehien bat zerbitzu telefonikoak mantentzeko, baina etxetik, etxetik ari gara normalean.

**Mikel:** Gu ere bai, hala ari gara. Gaurkoan...udalak mantentzen al du immigranteen kolektiboarekin harreman berezirik.

**Jon:** Begiratu, nik kolektiboez baino nahiago dut pertsonetaz hitzegitea. Krisi honek badakizu, zeharka eragiten du biztanleria, jatorria kontutan hartu gabe, eta ... egia da etorkinen zati bat behintzat egoera ahulago batean dagoela, estrukturalki, eta batez ere etorri berrien kasuan. Oraindik gizarte harreman ahulak, lan egoera kaxkarrak dituztela eta... bai, bai, pertsona hauekin harreman estua mantentzen dugu, praktikamente egunero.

**Mikel:** Orduan, ikusten da badagoela talde honetan behar berezi bat, ez? bestelako herrikideek daukaguna baino areagoa.

**Jon:** Nik pixka bat zentratuko nuke bi aspektuetan. Lehenengo behar nagusia ekonomikoa da, nola ez. Badira krisiaren ondorioz diru sarrerak galdu dituzten pertsonak eta, hori, horri erantzutea tokatzen zaigu, gure esku dauden baliabideekin. Gehien bat udal gizarte zerbitzuetatik ari gara lanean edo zubi lana egiten, pertsona hauen eta beste erakunde batzuen artean. Gurutze Gorria elikagaien banaketa egiteko edo Aldundia kasu larriagoak direnean.

Dena den ez da bakarrik arlo ekonomikoa, eh? Asko kezkatzen gaitu baita ere etorkin batzuek jasaten duten deserrotzea, laguntza sareen falta. Egun hauetan espontaneoki ikusten dugu, sortzen ari da elkartasuna, ikusten ditugu jarrera berriak gure gizartean, baina ez dira pertsona guztietara iristen. Bueno, susmoa da gehien bat eta gure artean bakarrik sentitzen diren pertsonak egon daitezke. Agian bakarrik komunitatea, bizilagunak edo erakundeak ezagutzen ez dituztelako, besterik gabe, baina, hori bai, eta horiek detektatzea eta zaintzea inportantea da.

**Mikel:** Orduan gainontzeko herritarrek adi egon behar dugu, horrelako beharrak ikusteko.

**Jon:** Ba horixe, bai, inportantea da azkenean elkartasun sare hori sortzea. Adi egotea, antzeman ditzakegun ahulezia egoeren aurrean eta, begiratu, azkenean garrantzitsua izan daiteke gure bizilagunei galdetzea nola dauden, laguntzarik behar duten. Seguru asko krisi honen aurretik ez dugu hitz bakar bat bera ere gurutzatu pertsona horiekin, baina orain inportantea da lagunduta sentitzea, babes hori sentitzea, ez? adi egon, guztiok egoera hauen aurrean.

**Mikel:** Ez dago gaizki, orduan, ahalegin berezi hori egitea, gainontzeko herritarrek ere. Bukatzeko, beste mezuren bat uztea nahiko zenuke?

**Jon:** Zaila da egun hauetan mezu positiboak entzutea eta neri horrela bukatzea gustatuko litzaidake. Begiratu, ni seguru nago azkenean krisi honetatik asko ikasiko dugula eta batez ere pertsona hobek izaten lagunduko digula. Oso ponposoa dirudi esaldiak, baina egunero ikusten dugu nola sortu den espontaneoki elkartasun bat, ez? Baina gero beste aldea ere etorri da. Guztiak sentitu gara ahul egun hauetan, bizitza aldatu zaigu horrela, egun batetik bestera, inork espero gabe eta honek, agian, esperantza badaukat nik eragingo digula, aurrerantzean, gure inguruko pertsonak modu desberdinean begiratzea, ez? enpatia haundiagoz, agian. Eta horixe izango da honek ekarriko digun gauza positiboaren artean, bakarrenetako bat, bestela ez da panorama oso itxurosoa.

**Mikel:** Ba mezu honekin geldituko gara orduan. Mila esker zure parte hartzeagatik.

**Jon:** Zuei, eskerrik asko zuei. Agur eta ondo izan.